

4. IKASGAIA. MERKATARITZAKO ERREGISTROA

Laburpena

1. Funtsezko nozioak
2. Merkataritzako Erregistroaren antolaketa
 - 2.1. Antolaketa
 - 2.2. Inskripzioa eta argitalpena
 - 2.3. Idazpen motak
 - 2.4. Inskripzioaren eraginkortasuna
3. Erregistroko publizitatearen printzipio orokorrak
4. Publizitate materiala
 - 4.1. Aurkajargarritasuna
 - 4.2. Ezezko publizitatea
 - 4.3 Baiezko publizitatea

1. FUNTSEZKO NOZIOAK

Legegileak merkatariei hainbat egitateei buruzko informazioa emateko obligazioa ezartzen die trafiko ekonomikoaren segurtasuna bermatzeko. Informazioa hau Merkataritzako Erregistroaren bitartez zabaltzen da, publikoa da eta legezko publizitatea deritzo. Argitaratu behar den informazioak merkataria erantzukizunaren eremuan eragina du eta horrexagatik da garrantzitsua trafikoarentzat eta merkatariarekin harremanak dituzten hirugarrenentzat.

Gaurko Erregistroaren aurrekin historikoa Erdi Aroko merkatarik korporazioen matrikulan aurkitzen dugu. Barneko efektu soilak duen erregistro horren informazioa XV. mendean kanpora zabaltzen da hirugarrenak ezagutu dezaten eta hortik aurrera bere eboluzio historikoan hedapen bikoitz bat eman da. Alde batetik ematen duen informazioa zabaldu egin da, eta bestetik datu bat inskribatzeak edo ez inskribatzeak ondorio juridikoak izango ditu. Azken hau da gero ikusiko duguna publizitate materialaren printzipioa aztertzerakoan.

Sainz de Andinoren kodean jasotzen da jada Merkataritzako Erregistroaren eraentza eta gaur Merkataritzako Kodean eta 1996ko Merkataritzako Erregistroaren Erregelamenduan aurkitzen dugu.

Merkataritzako Erregistroak funtzio desberdinak betetzen ditu. Lehenengoa, eta garrantzitsuenak, aipatu dugun legezko publizitatearena: merkatarien erantzukizunaren esanahia izan dezaketen egitateen informazioa ematea trafikoari. Baina horretaz gain Erregistroak merkatariei buruzko informazio finantzieroa ere ematen du: kapitalezko sozietateen eta sozietate taldeen urteko kontuak gordailuan utzi behar dira Erregistroan sei urtetan edonorrek kontsultatu ditzan (MK 16.II art.). Kontabilitate liburuen legalizazioa ere Merkataritzako Erregistroari dagokio (MK 16.II art.). Eta azkenik, hainbat kasutan, aditu independienteen eta kontu ikuskarien izendapena lege desberdinek erregistratzaileen eskuetan uzten dute; adibidez sozietate

anonimoaren ez diruzko ekarpenen balorazioa egiteko (KSL 67 art.), edo sozietaten fusioen kasuetan (MEE 338 e.o. artk.).

Espainiako Erregistroak inskripzioaren sistema jarraitzen du, hau da, Erregistroa eramaten den informazioa erregistratzaileak kalifikatu ondoren (kontrolatu ondoren) inskribatu egiten da eta inskribatutakoari ondorio juridikoak lotzen zaizkio: informazioa zuzentzen ez den bitartean ontzat emango da eta, bai merkataria bai hirugarrenak, informazio horretara lotuta geratuko dira (publizitate materiala).

Beste sistema “fitxeroarena” da; hau da, informazioa kontsultarako Erregistroan uzten da, baina ez dago aurretiatzko kontrolik eta horregatik ezta gorago aipatu dugun ondorio juridikorik.

2. MERKATARITZAKO ERREGISTROAREN ANTOLAKETA.

2.1. Antolaketa

Merkataritzako Erregistroa Lurraldetako Erregistroek eta Merkataritzako Erregistro Zentralak osatzen dute. Lehenengo kasuan bat dago probintzia bakoitzeko, salbuespen batzuekin¹. Madrilen kokatzen den Erregistro Zentralak beste Erregistroetan inskribatutakoaren laburpena jasotzen du eta argitaratu BORMEren bitartez (Boletín Oficial del Registro Mercantil).

Erregistro guztiak Justizia Ministeritzaren menpean daude eta Erregistro eta Notaritzaren Zuzendaritza Orokorrak (DGRN Dirección General de los Registros y del Notariado) du Erregistroari lotutako gai guztiei buruzko ardura (MEE 1 art.) .

2.2. Inskripzioa eta argitalpena

Merkataritzako Erregistroa pertsona erregistro bezala antolatzen da, oinarri subjeliboa du; inskribatzen den merkataria bakoitzak, beraz, bere orri pertsonala du. 1989an egindako erreformak subjektu inskribagarrien zerrenda zabaldu egin zuen, errepikapenak eta gurutzadurak utziz. MKko 16. I artikulok finkatzen ditu subjektu inskribagarri hauek, jasotzen den zerrenda itxia delarik². Inskribagarriak dira:

- enpresari/merkataria indibidualak
- merkataritzako sozietateak
- kreditu eta aseguru entitateak, eta elkar bermezko sozietateak
- inbertsio kolektiboko instituzioak eta pentsio fondoak
- interes ekonomikodun batzeak
- sozietate zibil profesionalak
- beste edozein pertsona fisiko edo juridiko, lege batek horrela dionean

¹ Ceuta, Melilla, Eivissa, Mahón, Puerto de Arrecife, Puerto del Rosario, Santa Cruz de la Palma, San Sebastián de la Gomera eta Valverde hiriek ere badute beraien Erregistroa.

² Ikus DE EIZAGUIRRE, *Derecho Mercantil*, 2008, 224.

Kodeak 22. artikuluan jasotzen du zein den subjektu hauei buruzko inskribagarria den informazioa, berriro ere zerrrenda itxi baten bitartez (*numerus clausus* printzipioa).

Inskripzioa erregutza printzipioa jarraituz egiten da, hots, interesadunak eskatu behar du. Erregistratzaileak, esan dugun bezala, kalifikatu egin behar du ematen zaion dokumentua inskripzioa egin aurretik. Hiru dira aztertu behar dituen arazoak: dokumentuen kanpo formen legezkotasuna, dokumentua egiletsi edo sinatzen duten pertsonen gaitasuna nahiz legitimazioa eta dokumentuaren edukiak duen baliozkotasuna, dokumentuak zein Erregistroko idazpenek ondorioztatzen dutenaren arabera (MK 18.2 art., MEE 6 art.).

Hau dena aztertu ondoren erregistratzaileak erabakiko du inskripzioa egiten duen, esekita uzten duen konpondu daiteken akatsak dituelako edo uko egintzen dion akatsak konpon ezinak direlako (MEE 62 art.).

Tituluak inskripzioa oztopatzen duen akatsen bat duela dioen kalifikazioaren kontra interesdunek gobernu-errekurtsoa jar dezakete (MEE 66 art.). Erregistratzailearen erabakiaren aurka Erregistro eta Notaritzaren Zuzendaritza Orokorreara zuzendu beharko du bere helegitea (MEE 71. art.). Bai erregistratzailearen erabakiak, bai Zuzendaritza Orokorrearenak helegigarriak dira jurisdikzio zibilean (LH 328.2 art.).

Inskribatutako egintzak argitaratu egiten dira BORME aldizkarian (MEE 421 art.), baina ez osorik, oinarritzko datuak jasotzen dira bakarrik argitalpen horretan (ikus MEE 386 e.o. artk.). Honek arazoak ekar ditzake ikusiko dugun publizitate materialaren eremuan. Doktrinaren gehiengoak uste du aurkajargarria den informazioa inskribatutakoa dela eta ez bakarrik argitaratutakoa; argitalpenak hirugarrenei inskripzio bat egin delakoaren “abisua” emango lieke.

2.3. Idazpen motak

Idazpen (*asientos*) hitzarekin erregistroaren liburuetan jasotzen den informazio mota desberdinak adierazten dira. Bost dira idazpen motak (MEE 33 art.):

- aurkezte idazpena: inskribatu nahi den dokumentu baten sarrera jasotzen du (MEE 42 art.)
- inskripzioa: behin kalifikazioa egin ondoren, inskribagarria den egintzari buruzko informazio osoa jasotzen duen idazpena da.
- prebentziozko oharpena: inskripzio batean jasotako informazioa ebazpen edo epai baten zai dagoela adierazten du (MEE 115, 157 artk.)
- ezeztapena (*cancelación*): idazpen baten iraupenari amaiera ematen dio (ad. Sozietate baten iraungipena, MEE 247 art.)
- albo-oharra: inskribatutako informazioari buruzko datu desberdinak jasotzen ditu (ad. MEE 238 I 1 art., sozietateen desegitea epearen ailegatzeagatik).

2.4. Inskripzioaren eraginkortasuna

Orokorrean inskripzioak ez dio ezer gehitzen inskribatutako egintzari eraginkortasun juridikoaren ikuspegitik begiratuz. Hau da, faktore baten kargutik kentzeak eraginkortasun osoa izango du merkataria faktoreari jakinarazten dionetik (KZ 1735 art.), edo administratzaile baten izendapenak balio osoa du egiten denetik, inskripzioari itxoin gabe. Inskripzioaren eragina deklaratu da eta ondorioak ditu hirugarrenen ikuspegitik (publizitate materiala, MK 21. art.), baina harremaren alderdien artean (merkataria/faktorea, administratzailea /sozietatea) inskripzioa ez da beharrezkoa inskribatutakoak balio ezan dezan.

Baina arau orokor honek baditu salbuespenak: kapitalezko sozietateen eratzeak inskripzioa galdatzen du, inskripzioa gabe ez dago kapitalezko sozietaterik (KSL 20, 33 artk.).

Bestalde kodeak dio inskripzioak ez dituela egintzak izan ditzaken akatsak baliozkotzen (MK 20. 2 art.).

3. ERREGISTROKO PUBLIZITATEAREN PRINTZIBIO OROKORRAK

Erregistroaren funtzionamendua eta inskribatutakoaren eragina printzipio orokor batzuen bitartez azaldu ditzakegu.

- 3.1. Inskribatzeko beharra: Merkataritzako Erregistroak bere funtzioa bete dezan inskribagarriak diren egintzen inskripzioa derrigorrezkoa da. Hau ez dugu, baina, nahastu behar inskripzioa eratzailerekin, esan dugu inskripzioa orokorrean deklaratu dela (MK19 II art.)
Salbuespena merkataria pertsona fisikoaren inskripzioan dugu, hau borondatezkoa da. Baina inskribatzen ez den merkataria ezingo du interesatzen zaion informaziorik inskribatu, eta ezingo da, beraz, aurkajargarritasunaz baliotu hirugarrenen aurrean (MK 19 I art.).
- 3.2. Dokumentu publikoaren beharra (MK 18. I art.): inskripzioa egin ahal izateko dokumentu publiko bat aurkeztu behar da Erregistroan. Salbuespenak legez jaso beharko dira.
- 3.3. Erregutze printzipioa (MK 18 II art.): inskripzioa interesadunaren eskariari jarraituz egin daiteke soilik. Salbuespen kasu gutxi batzuetan bakarrik egin ditzake Erregistratzaileak ofizioz albo-oharrak edo ezeztatze idazpenak.
- 3.4. Legezketasun printzipioa (MK 18 II art.). Dokumentu bat aurkezten denean Erregistroan inskribatzeko erregistratzaileak kalifikazio bat egiten du hiru puntu aztertuz: dokumentuen kanpo formen legezketasuna, dokumentua egiletsi edo sinatzen duten pertsonen gaitasuna nahiz legitimazioa eta dokumentuaren edukiak duen baliozkotasuna, dokumentuak zein Erregistroko idazpenek ondorioztatzen dutenaren arabera.

- 3.5. Publizitate formala (MK 23. art.): Erregistroan jasotzen den informazioa publikoa da, edozeinek eska ditzake ohar informatiboak edo zihurtagiriak. Horretaz gain BORMEren bitartez argitaratzen da inskribatutako guztiaren informazioaren laburpena.
- 3.6. Zehaztasunaren printzipioa (MK 20.1 art.): Erregistroaren edukiak zehaztasunaren eta baliozkotasunaren presuntzioa du, eta ondorio juridikoak sortuko ditu adierazpen judizial batek (inskribatua izan beharko denak) bere zehaztasunik eza edo deuseztapena deklaratzeko ez duen bitartean. Presuntzio hau *iuris tantum* presuntzio bat da eta erregistratzailearen kalifikazio funtzioan oinarritzen da.
- 3.7. Fede publikoaren printzipioa (MK 20. 2. II art.): zehaztasunik eza edo deuseztasunaren deklarazioek ez diete kalterik egingo fede oneko hirugarrenen eskubideei (beraz aurreko printzipioaren presuntzioa hirugarren interesadunen ikuspegitik *iuris et de iure* bihurtzen da).
- 3.8. Publizitate materiala (MK 20.2, 21 artk.): hurrengo puntuan aztertuko dugu.
- 3.9. Lehentasunaren eta aurretiazko inskripzioaren printzipioak (MEE 10, 11 artk): ezingo da titulurik inskribatu baldin eta inskribatutako tituluen kontrakoa edo horiekin bateraezina bada. Bestalde, inskribatu beharreko subjektuari buruzko egintzak edo kontratuak inskribatzeko, nahitaezkoa da aurretiaz subjektua bera inskribatuta egotea, eta aurretiaz egiletsitako egintza edo kontratu batzuk aldatzeko edo iraungitzeko, beste egintza edo kontratu batzuk egin badira, azken horiek inskribatu ahal izateko aurretiezkoak ere inskribatuta egon behar dira (pentsa, adibidez, faktore baten kargutik kentzearen inskripzioa).

4. PUBLIZITATE MATERIALA

Merkataritzako Erregistroaren funtzio juridiko garrantzitsuena publizitatearen ondorio juridikoen bitartez gauzatzen da. Publizitate honen bitartez bi alderdiren artean sortutako harremanak eragina du hirugarrenengan (KZ 1257 I artikuluan *inter partes* arrezagutzen den kontratuen eraginkortasunaren salbuespena litzake). Eragin hori ematen delako Erregistroak hirugarrenen alde egiten du, hauek erregistroan duten konfidantza babestuz.

Printzipio honen bitartez trafikoa babesten da, inskribatutakoaren omisioak edo zehaztasunik ezak inskripzioa egiteko obligazioa dutenak kaltetzen dituelako. Eta bestalde beraiei buruzko informazioa argitaratzeko obligazioa betetzen dituzten merkataria ere babesten ditu, hauek erabili dezaketelako argitaratutako informazio hori hirugarrenen aurrean. Hirugarrenek ezingo dute argudiatu ez zutela erregistroak jasotako informazioa ezagutzen.

Publizitate materialaren printzipioa hiru ikuspegitik aztertu behar da:

4.1. **Aurkajargarritasuna** (oponibilidad): MK 21 art.

Kodeak dio bere 21. artikuluan inskribatu beharreko egintzak Merkataritzako Erregistroaren Aldizkari Ofizialen argitaratu ondoren hirugarrenei aurkajargarriak izango direla, hau da, hirugarren hauek ezingo dute esan ez zutela inskribatutako informazioa ezagutzen.

Adibidez, merkatoriaren ezkontideak, komunean dituzten ondasunak merkataritzako jardueratik kanpo uzteko borondatea inskribatu duenean, merkatoriaren hartzekodun bat ezingo da saiatu horiek erabiltzen bere kreditua asetzeko, Merkataritzako Erregistroan jaso den aldaketaren berri ez zuela argudiatuz.

Aurkajargarritasunak baditu bi salbuespen garrantzitsu:

- 21.2 artikuloa: eragiketak egiten badira argitalpena egin eta hurrengo hamabost egunetan, inskribatu eta argitaratutako egintza horiek ezin dira hirugarrenei aurka jarri, hirugarrenek frogatzen badute ez zutela aukerarik izan egintza horiek ezagutzeko (pentsa, adibidez, kargutik kendu den faktore batek egindako kontratu batean).
- Itxura juridikoaren doktrinaren aplikazioa (*apariencia jurídica*): desadostasun bat dagoenean inskribatutakoaren informazioaren eta inskribatzaileak berak, bere portaerarekin, adieraztera ematen duen informazioaren artean, hirugarrenak azken honetan izan duen konfidantza babestuko da eta erregistroak jasotzen duena ez zaio aurka jarriko. Honen adibide argiak ikusi ditzakegu Duralfe (AG 1989.11. 24ko epaia) eta Mimosa Park (AG 1999. 03. 18ko epaia) kasuetan. Itxura juridikoaren doktrina aplikatu ahal izateko lau ukanbehar bete behar dira:
 - hirugarrenarengan konfidantza sortzen duen egoera bat
 - egoera hori egozgarria izan behar zaio merkatoriari (inskribatzeko obligazioa duenari)
 - hirugarrena fede onekoa izan behar da (ez du ezagutzen Erregistroan jasotzen den informazioa; fede ona presumitu egiten da -21.IV art-, beraz, merkatoriak frogatu beharko luke hirugarrenak ezagutzen zuela informazioa hori)
 - babesa merezi duen hirugarrenaren egintza bat (gehienetan kontratu bat izango da) egon behar da

4.2. **Ezezko publizitatea** (publicidad negativa): MK 21 art.

21. artikulok dio argitaratu ondoren bakarrik izango dela aurkajargarria inskribatutako informazioa, beraz, inskribagarria izanik, inskribatzen eta argitaratzen ez den informazioa ezingo dio merkatoriak hirugarren bati aurka jarri. Errealitatean aldaketa bat eman bada (adibidez, sozietate kolektibo baten bazkide batek sozietatea utzi egin du), baina hori ez bada argitaratzen, hirugarrenek aldaketarik egon ez balitz bezala jardun dezakete (adibidez, bazkide hori sozietatearen hartzekodunek erantzukizuna eskatu diezaioke).

Dena den, ezezko publizitatea hirugarrena babesteko pentsatua dagoenez, ez da beharrezkoa erregistroan jasotzen den informazioa nagusitzea, hirugarrenak beti aukeratu dezake egiazko egoera, komenigarriagoa bazaio. Aukera izango du, beraz, egoera erreala edo erregistrotik indorioztatzen dena kontutan izateko, bere interesak babesterakoan³.

4.3. **Baiezko publizitatea** (publicidad positiva): MK 20.2, 21.3 artk.

Azkenik aztertu behar dira egoerak non Erregistroak informazio akastuna jasotzen duen edo non, nahiz eta informazioa ondo inskribatua egon, argitaratzerakoan akatsak eman diren⁴.

Kasu hauetan kodeak aukera ematen dio hirugarrenari komenigarriago zaion informazioa erabiltzeko: argitalpenaren edukiaren eta inskripzioaren edukiaren artean kontraesanen bat badago, fede oneko hirugarrenek argitalpenaz balia daitezke, hori beraien onurarako bada. Merkatariak erantzukizuna eska diezaioke kontraesana sortu duenari.

³ Ikus, DE EIZAGUIRRE, 239.

⁴ Ikus, DE EIZAGUIRRE, 242.